



Olalde (-a) etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Olálde



43° 10' 41"

2° 35' 57"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... una casa titulada Olalde...
sita en la cofradía de Eitua de
la anteiglesia de Berriz... consta
de piso llano y piso alto, el
piso llano esta distribuido en
zaguan de entrada, cocina, tres
dormitorios y el resto destinado
a cuadras teniendo además
un horno de pan cocer por el
lado Sur unido a la casa; el
piso alto en dos departamentos
destinados el uno a camarote y
el otro pajar. Ocupa su planta
doscientos sesenta y siete metros
cuadrados ó sean setenta esta-
dos y diez y ocho céntimas..."
DJE, 5/218. or. (1887)*

Olabarria (Ikus Olabarria) baserriaren goialdean kokaturiko baserri honen inguruan ere aipua ugariak dira XVIII. mendetik hona. Kasu honetan ere, aldaketarik jasan ez dituen izen baten aurrean gaude, eta mendeotan forma bera mantendu izan da dokumentazioan: *Olalde* (1704, Bizkaiko su-erroldean), *Olalde* (1857, BUA, Viv) eta *Olalde* (1967, BUA, CE). Ahozkotasunean ere, modu bera erabiltzen da, *Olálde*, hain zuzen ere.

Baserri ederra dugu, 1800 inguruan egiten zirenen tankerakoa, bere atarteko arku zabalak frogatu legez. Bi isurkiko teilatuaren azpiko fatxada nagusia oso era simetrikoan burututa dago, erdialdea indartuz. Hala, arku bikai-

naren gainean balkoia dauka, hormigoizko zoruduna, eta albo bakoitzean, bina leiho eta ganbaran beste bat, gailurraren azpian. Beheko solairuan, berriz, leiho bana du arkuaren alde bakoitzean, biak hormigoizko plaka batez hornituak, goikoak bezala. Hala ere, nabarmendu behar da jatorrizko harlanduzko leihoa itsututa dagoela. Etxea harlangaitzezko hormekin jaso zuten, harlanduzko kantalekin indartuta, arku eta leihoa moduan. Hormak garai batean luzituta eta pintatuta egongo ziren, goiko pisuetan ikus daitekeen moduan; baina beheko solairuan, berritu zutenean, harria desestali egin zioten.

toponimia

Lehenago esan bezala garai batean ola edo kortabaso herri basoetan egiten ziren belardi biribilei esaten bazitzairen ere, azken mendeotan olak burdina sortzeko edo lantzeko egoten ziren eraikuntza bereziak izan dira. Kasu honetan -alde posposizioaz ageri da lagunduta. Izenak ez du aldaketarik izan denboran zehar amaierako artikularen galera izan ezik antzina Olalde baitzen.



San Fausto, Guregipuzkoa.net/Ermita de San Fausto © CC BY-SS: Ojanguren, Indalecio.